

Gaitasun mota	Kodea	Gaitasuna
Oinarrizko gaitasunak	60G	Ideiak garatu eta/edo aplikatzean originalak izateko oinarria edo aukera ematen duten ezagutzak edukitzea eta ulertzea, askotan ikerketa-testuinguru batean.
	70G	Ikasleek eskuratutako ezagutzak eta arazoak konpontzeko duten gaitasuna testuinguru zabalagoetan (edo diziplina anitzekoetan), ingurune berrietan edo oso ezagunak ez direnetan aplikatzen jakitea, betiere beren ikasketa-arloarekin loturik badaude.
	80G	Ikasleak ezagutzak integratzeko eta iritziak formulatzearen konplexutasunari aurre egiteko gai izatea, osatugabea edo mugatua den baina beren ezagutzak eta iritziak aplikatzearekin lotutako erantzukizun sozial eta etikoei buruzko hausnarketak barne hartzen dituen informazioa izanik.
	90G	Ikasleek jakin dezatela publiko espezializatuei eta ez-espezializatuei modu argian eta anbiguotasunik gabe azaltzen zein diren beren ondorioak eta horien oinarri diren azken ezagutzak eta arrazoiak.
	100G	Ikasleek ikasteko trebetasunak edukitzea neurri handi batean beren kasa edo modu autonomoan ikasten jarraitu ahal izateko.
Gaitasun orokorrak	01GO	Telekomunikazio Ingeniaritzako esparru guztietan produktu, prozesu eta instalazioak proiektatzeko, kalkulatzeko eta diseinatzeko gaitasuna izatea.
	02GO	Telekomunikazio sistemetako lan eta instalazioen zuzendaritzarako gaitasuna izatea, eta arau indardunak betetzea eta zerbitzuaren kalitatea bermatzea.
	03GO	Diziplina anitzeko ekipoak zuzentzeko, planifikatzeko eta ikuskatzeko gaitasuna izatea.
	04GO	Zentro teknologikoetako eta enpresa ingeniaritzako modelatze matematikorako, kalkulurako eta simulaziorako gaitasuna izatea, batez ere ikerketa, garapen eta berrikuntza lanetan Telekomunikazio Ingeniaritzarekin eta antzeko diziplina anitzeko eremuekin lotutako esparru guztietan.
	05GO	Proiektuen prestakuntzarako, plangintza estrategikorako, zuzendaritzarako, lankidetzarako eta kudeaketa tekniko eta ekonomikorako gaitasuna izatea Telekomunikazio Ingeniaritzaren esparru guztietan, kalitate- eta ingurumen irizpideei jarraikiz.
	06GO	Enpresa eta zentro teknologikoetako ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuen zuzendaritzarako, zuzendaritza orokorrerako eta zuzendaritza teknikorako gaitasuna izatea.
	07GO	Ekipo elektroniko eta telekomunikazioko fabrikazio prozesuak abian jartzeko, gidatzeko eta kudeatzeko gaitasuna izatea, pertsona eta ondasunentzako segurtasuna, produktuen amaierako kalitatea eta haien homologazioa bermatuta.
	08GO	Telekomunikazio ingeniariaren lanbideko jardueraren erantzukizun etikoa eta deontologia profesionala ulertzeko gaitasuna izatea.
	09GO	Ekonomiako eta giza baliabide eta proiektuen kudeaketako printzipioak aplikatzeko gaitasuna izatea, bai eta telekomunikazioen arloko legeria, erregulazioa eta normalizazioa ere.
	10GO	Telekomunikazio ingeniariaren lanbidean aritzeko bete behar diren legeak ezagutzea, ulertzea eta haiek aplikatzeko gaitasuna izatea.

Zeharkako gaitasunak	Ez dago daturik.	
Gaitasun espezifikoak	01GE	Komunikazio-sistemetan eta ikus-entzunezkoetan informazioaren teoriaren metodoak, modulazio moldagarria eta kanalaren kodifikazioa aplikatzeko gaitasuna izatea, baita seinalea digitalki prozesatzeko teknika aurreratuak ere.
	02GE	Irrati-komunikazioko sistemak garatzeko gaitasuna izatea: antenak, ekipoak eta azpisisemak diseinatzea, kanalak modelatzea, loturak kalkulatzea eta planifikatzea.
	03GE	Komunikazio-ingurune finko eta mugikorretan kable, linea eta satelite bidezko sistemak ezartzeko gaitasuna izatea.
	04GE	Multimedia-seinaleak garraiatzeko, zabaltzeko eta banatzeko sareak diseinatzeko eta dimentsionatzeko gaitasuna izatea.
	05GE	Irrati-nabigazioko eta posizionamenduko sistemak eta radar-sistemak diseinatzeko gaitasuna izatea.
	06GE	Sareak, zerbitzuak eta edukiak modelatzeko, diseinatzeko, ezartzeko, kudeatzeko, eragiketak egiteko, administratzeko eta mantentzeko gaitasuna izatea.
	07GE	Sareak, zerbitzuak eta aplikazioak planifikatzeko, erabakiak hartzeko eta paketatzeko gaitasuna izatea, zerbitzuaren kalitatea, zuzeneko kostuak eta eragiketa kostuak, ezarpen plana, gainbegiratzea, segurtasun-prozedurak, eskalatzea eta mantentze-lanak kontuan hartuta, bai eta garapen-prozesuan kalitatea kudeatzeko eta ziurtatzeko ere.
	08GE	Interneten funtzionamendua eta antolaketa, belaunaldi berriko Interneteko protokoloak eta teknologiak, osagaien ereduak, software bitartekaria eta zerbitzuak ulertzeko eta aplikatzen jakiteko gaitasuna izatea.
	09GE	Sare heterogeneoek tokiko, sarbideko eta enborreko sareekin duten konbergentzia, elkarreragingarritasuna eta diseinua konpontzeko gaitasuna izatea, bai eta telefonia, datu eta telebista zerbitzuen eta zerbitzu interaktiboen integrazioa ere.
	10GE	Zirkuitu integratuak diseinatzeko eta fabrikatzeko gaitasuna izatea.
	11GE	Konplexutasun handiko zirkuituetarako hardwarea deskribatzeko lengoaiak ezagutzea.
	12GE	Gailu logiko programagarriak erabiltzeko eta sistema elektroniko analogiko zein digital aurreratuak diseinatzeko gaitasuna izatea. Banda desberdinetan komunikazio-osagaiak diseinatzeko gaitasuna izatea, hala nola bideratzaileak, konmutadoreak, kontzentratzaileak, igorleak eta hartzaileak.
	13GE	Fotonikako, optoelektronikako eta maiztasun handiko elektronikako ezagutza aurreratuak aplikatzeko gaitasuna izatea.
	14GE	Instrumentazio elektronikoa, transduktoreak, eragingailuak eta sentsoreak garatzeko gaitasuna izatea.
	15GE	Telekomunikazio Ingeniaritzaren berezko teknologiak eta sistemak integratzeko gaitasuna, oro har eta testuinguru zabalagoetan eta diziplina anitzekoetan, hala nola bioingeniaritzan, konbertsio fotovoltaiakoan, nanoteknologian, telemedikuntzan.
	16GE	Hauei buruzko proiektuak egiteko, gidatzeko, koordinatzeko eta kudeaketa tekniko eta ekonomikoa egiteko gaitasuna izatea: telekomunikazioko sistema, sare, azpiegitura eta zerbitzuak, atxikitako obraren proiektu partzialak gainbegiratzea eta koordinatzea barne; bizitegi-eraikin edo -nukleoetako telekomunikazioko azpiegitura komunak, etxe digitalari buruzko proiektuak barne; garraioaren eta ingurumenaren arloko telekomunikazioko azpiegiturak; eta dagozkien instalazioak energia hornitzeko eta emisio elektromagnetikoak eta bateragarritasun elektromagnetikoa ebaluatzeko.
	17GE	Ikasketa-planeko kreditu guztiak lortu ondoren, ariketa original bat banaka egin eta Unibertsitateko epaimahai baten aurrean aurkeztea eta defendatzea. Ariketa hori izaera profesionaleko Telekomunikazio Ingeniaritzako proiektu integral bat izanen da, eta bertan ikasketetan eskuratutako gaitasunak laburbilduko dira.